Ospetsuenak:

Unesco Erovoc euskaraz ELGA macrothesaurus Unbis (NB)

Indizeek *deskriptore* dute izena

- ▶ Normalizatuak:
 - Kontzeptuak
 - Hitz bat edota hitz multzoak (baina ahal den gutxien)
 - Deklinatu gabeko izenak
 - Forma ezagunenak...

Eurovoc Thesaurusa

- ▶ Europar Batasuneko **21 hizkuntza** ofizialetan dago.
- ▶ 21 gai-eremu
- ▶ 127 mikrothesaurus
- ▶ 6645 deskribatzaile, tartean 519 top term

- ▶ elkarrekiko 6669 erlazio hierarkiko
- ▶ elkarrekiko 3636 erlazio asoziatibo

DESKRIPTOREEN ARTEKO HARREMANAK

Baliokidetasuna, sinonimo linguistikoak edo dokumentalak: ikus /ordezkatua

USE / UF *used for*

Hierarkia: termino zehatza / termino orokorra

NT *narrow term* / BT *broader term*

Hurbiltasuna: termino hurbila

RT *related term*

Erabilera-oharrak: SN *scope note*

2. Hierarkia

» urrutiko salmenta (4673)

▶ TRUKE EKONOMIKOAK ETA MERKATARITZAKOAK (20)

▶ MT merkaturatzea (2031)

» UF

- » postazko salmenta
- » teleroketa
- » urrutitik negoziatutako kontratua

» BT1 salmenta

» BT2 merkataritzako egintza

» NT1 merkataritza elektronikoa

» NT2 sinadura elektronikoa

← Termino orokorragoak

← Termino zehatzagoak

3. Hurbiltasuna

» sinadura elektronikoa (6370)

▶ TRUKE EKONOMIKOAK ETA MERKATARITZAKOAK (20)

▶ SN Beste datu elektronikoa batzuei erantsita dauden edo haiekin lotura logikoa duten datu elektronikoen, egiaztatzen direnak.

▶ MT merkaturatzea (2031)

» BT1 merkataritza elektronikoa

» BT2 urrutiko salmenta

» BT3 salmenta

» BT4 merkataritzako egintza

» RT

» datuen babesak (3236)

» froga (1221)

Termino hurbilak

Internet

Gaur egun, **Internet** informazioaren plataforma nagusia bilakatu da, *informazioa ekoiztu, zabaldu eta partekatzeko*.

1. Kontzeptua

Mundu osoan zabaldua dagoen sareen sare erraldoi bat da, TCP/IP protokoloak erabiliz, milioika ordenagailu elkar konektatzen dituen

World Wide Web Interneteko alde ezagunena da, baina ez da bakarra, fitxategien transferentzia (FTP, P2P), posta elektronikoa (e-posta), elkarrizketak (txat), bat-bateko mezularitza, sareko jokoak... ere baditugu.

Internet informazioaren autopista da, horregatik, ez da nahikoa egotea, nola dagoen eta nola bilatzen dugun baldintzatuko dute aurkituko

Sareak bi alde ditu: *agerikoa* eta *ikusezina*.

Internet ikusezina, sarean egon arren, ikusgarritasun ezagatik ezkutuan geratzen dena da. Bilaketa-tresnetako emaitzetan (**Google-n**) ez dena azaltzen, alegia.

Baina, zergatik ez da agertzen bilatzaileetan azken informazio hori?

Informazioa datuz osatutako tauletan egituratzen da, eta galdera (*query*) bidez kaleratzen da, formularioetan bilaketa zehatzak eginez.

Beraz, interesgarria suerta daitekeen hainbat informazio, ez dugu zuzenean jasoko.

2. Tendentziak

Infoxikazioa: Hartzen dugun informazio kopurua hainbestekoa da, etengabeko datu jariora itogarria suertatu daitekeela. Informazio larregik intoxikatu egiten gaitu, infoxikazioa sortuz (*gehiegizko informazioaren intoxikazioa*).

Infozaborra: sarean metatu diren inork nahi ez duen publizitatea eta errepikatutako informazioak, bilatzaileen lan eraginkorra oztopatzen dutena.

Analfabetismo teknologikoa: Teknologien hedapena azkarra izan da, hala ere, *guztiok ez gara* teknologia berriak ulertu eta modu eraginkorrean erabiltzeko *gai*.

Eten digitala. Erabiltzaile eta erabiltzaile ez direnen arteko hutsunea.

Pasibotasuna: Teknologiekin ohituta dauden erabiltzaileen artean partaide pasiboak nagusi dira (lurker-ak), informazioa eskuratzen dute, aldez ez dute informazio-edukirik sortzen.

Itzal digitala: artxiboetan, zerrendetan, buletin ofizialetan, web nabigazio historietan, posta bidalketetan gordeta daude gure datuak. Guk horietako heren bat sortzen dugu, beste biak gure kontrolpetik kanpo daude. Gure itzala dira, itzal digitala. *Irudikatzen gaituzte, baina ez gara gu*.

Pazientzia gutxiko nabigazioa. Ikerketen arabera, gehien jota 10 segundo ematen ditugu web-orri baten informazioa bilatzen, eta Googleko erabiltzaileen %3a pasatzen da soilik bilaketa emaitzetako bigarren orrialdera. Informazio zuzena eta zehatza aurkitu nahi dugu *begirada bakar bat* emanaz.

3. Dokumentu Digitalak

Dokumentu digitalak aplikazio informatikoen bidez formatu digitalean sortutakoak dira.

Digitalizatutako dokumentuak eskaner edo antzeko erremintak erabiliz. Testuen kasuan emaitza irudi edota testu bat izan daiteke ([OCR](#)-ak erabiliz).

Ezaugarriak

- Elektronikoak dira: [zenbaki-sistema bitarrear](#) kodifikatuak daude
- Prozesagarriak
- Grabagarriak
- Berrerabilgarriak
- Esportagarriak
- Eguneragarriak
- Berreskuragarriak
- Bikoiztu daitezke
- ***Bitartekari teknologikoa eskatzen dute.
- ***Formatu eta euskarrien menpe daude, eta hauek ahulak eta aldakorrak dira.

Formatua

- **Testu dokumentuak:** esaterako word dokumentuak (.doc, .txt, .rtf hedapenak dituztenak.)
- **Bistaratze dokumentuak:** ikusteko edo inprimatzeko artxiboak, esaterako pdf formatukoak.
- **Inkrustatuak** (kapsulatuak): formatu desberdinetako artxiboak gordetzen dituzten fitxategiak ([openDoc](#), [OLE](#)).
- **Egituratuak:** programazio lengoaietan garatutako dokumentuak ([html](#), [xml](#), [xhtml](#), [css](#)). Dokumentuak egituratuta daude eta hipertestua lantzen dutela.
[Hipertestua](#) testu mota bat da estekez hornitua, zerikusia duten testuak lotzeko, erabiltzaileari batetik bestera ibiltzeko aukera emanaz.
- **Irudi dokumentuak:** artxibo grafikoak, esaterako argazkiak. ([gif](#), [jpeg](#), [tiff](#))
- **Audio dokumentuak:** soinuak artxiboak, esaterako [mp3](#)etako artxiboak.
- **Bideo dokumentuak:** mugimenduan dagoen irudizko dokumentuak. ([wmv](#), [mpeg](#))
- **Multimediak:** irudi, soinu eta testu fitxategiak elkartzen dituzten artxiboak. ([flash](#), [java](#))

- **Konprimituak:** dokumentuak beste formatu batzuetan konprimitzen dituzten artxiboak ([zip](#), [rar](#))
- **Tridimentsionalak:** hiru dimentsiotan garatutako dokumentuak ([QTVR](#))
- **Zenbakizkoak:** matematika, estatistika edo zenbakietan oinarritutako dokumentuak ([excel](#), [spss](#))
- **Exekutagarriak:** aplikazio informatikoak.

4. Dokumentu Digitalen Biltegiak

Liburutegi digitalak: Zerbitzari batean kokatzen dira dokumentu digitalak, kontsulta publikoa ahalbidetzeko asmoz.

Gordailuak: Egileek biltegitan dituzte euren dokumentu digitalak, hauen kontserbazioa eta kontsulta bermatuz.

- Bertikalak (gai bakar baten ingurukoak), adib. [E-LIS](#)

(Dokumentazioari buruzkoak)

- Horizontalak (gai asko), adib. [ADDI](#) EHU-koa.

Datu-baseak: Antzekotasuna duten datu-bilduma dira, datu-base programa informatikoekin kudeatuta.

Esaterako, [Inguma](#), [Badok](#) edo [GureGipuzkoa](#).

Web guneak: Interneten HTTP protokoloaren bitartez eskuragarri dagoen fitxategi eta web orrialde bildumak dira.

Tamaina aldetik oso desberdinak, eta informazioa eta zerbitzuak eskaintzen dituzte. Adib. <http://www.ehu.eus>

Blogak: Egileak (blogaria) mezuak egunkari edo bitakora moduan idatzi eta kronologikoki argitaratzen ditu. [Euskal blogosfera](#)

5. URL

Sareko baliabideen helbide elektronikoa identifikatu eta idazteko sistema da.

URL batek lau zati izaten ditu:

- Interneteko protokoloa: [http](#), [ftp](#), [telnet](#)...
- Zerbitzaria eta domeinuaren izena. Adibidez: www.profesionaldelainformacion.com
- Direktorioa edo artxiboaren izena.
- Dokumentuaren hedapena (formatua: .doc, .pdf, .jpeg)

- Googleko emaitzetan informazioa hautatzeko zerbitzaria oso inportantea da.

Lehen mailako domeinuak:

- Estatu-kodeak . Adibidez: .it, .co, .uk...
- Orokorrak:
 - Historikoak: Internetekin jaio ziren domeinu izenak dira, .com, .net, .org... Egun erabilera orokorreko bilakatu dira.
 - Ez babestuak. Adibidez: .biz [negozioetarako], .name [pertsontzat], edo .pro [profesionalentzat].
 - Babestuak: Komunitateak eskatzen du eta komunitatea da domeinuaren administrazioaren arduraduna: .museum [museoak], .aero [aeronautika], .cat [hizkuntza eta kultura katalana] edota .eus.

6. Nabigatzaileak

Milaka gunez osatuta dagoen sarean, behar ditugun datuak eskuratzeko bi tresna erabiliko ditugu: **nabigatzaileak** eta **bilatzaileak**.

Nabigatzaileak hipertestuaren bitartez Interneten sartu eta bertan mugitzeko ahalbidetzen dituzten aplikazioak dira.

Erabilienak: Internet Explorer, Firefox, Opera, Safari, Chrome...

Bilatzailea

- Internet automatikoki aztertzen duen sistema da.
- Webguneen helbideak batzen ditu datu-base batean
- Datuak bilatzeko aukera ematen du datu-basea kontsultatuz.

Funtzionamendua

- Internet automatikoki aztertzen duen sistema da.
- Webguneen helbideak batzen ditu datu-base batean
- Datuak bilatzeko aukera ematen du datu-basea kontsultatuz.
- Robotek noizbehinka miatuko dute sarea (ez uneoro).
- Informazioa eskatzen dugunean lehenengo memorian (katxean) gordetako kopia begiratuko du, erantzuna oso azkarra izaten ahalbidetuz.

Motak

- Orokorrak
- Espezifikoak
- Metabilatzaileak

Orokorrak

- Webguneak eta informazioa bilatzeko eguneroko tresnak.
- Dauden informazio guztiak ezin ditugu zuzenean eskuratu (Internet ikusezina, inf. pribatuak...).
- Handienak: Google, Bing, Ask.com, Yahoo...
- Euskaraz: Elebila eta Kaixo.

Espezifikoak

- Geografikoki mugatuak
- Enpresarako zuzenduak
- Osasuna
- Hezkuntza
- Albisteak
- Blogak
- Sare sozialak
- Pertsonak

- Mapak
- Galdera-erantzunak
- Prezioak
- ...

Metabilizatzaileak

- Ez daukate datu-base propioarik, bilatzaile anitzetara bideratzen dituzte bilaketak.

Adibidez, Metacrawler, Ixquick, Clusty, Excite, HotBot...

GOOGLE

Sergey Brinek eta Larry Pagek sortu zuten 1998an, Stanfordeko Unibertsitatean.

- Arrakasta:
 - Sinpletasuna;
 - Tamaina; eta
 - Eraitzen ordenamendu eraginkorra.

PageRack

- Ordenamendua egiteko erabiltzen den algoritmoa da: sekretua eta sarri aldatua.
- Saritzen ditu:
 - Ikusgaitasuna: esteka asko jasotzen dituzten webguneak;
 - Webgunea eraberritzea ...
 - Praktika desegokiak zigortzen ditu.
- Azken urteetan, emaitzak erabiltzaile bakoitzari egokituak (aurreko kontsultak kontuan hartuta...)
- Praktika honek eztabaida piztu du.

Google-n negozioa

publizitatea da /

gu gara.

Arazoak?

- Google (soilik) erabiltzen dugu informazioa bilatzeko.
- Pertsona gutxi doaz emaitzen 2. orrialdera.
- Pribatutasuna? gure datuak gordetzen dituzte.

Bilatzailea ardatza bada ere, beste zerbitzu eta tresna arrakastatsu batzuk sortu ditu:

- Google news
- Google books
- Google académico
- Google gmail
- Google docs
- Google maps
- Google translate
- Google calendar
- Blogger
- ...

<http://www.google.es/intl/en/about/products/>

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Google>

INFORMAZIO BILAKETAK


Planifikatua

- Zer nahi dugu:
 - testuak, irudiak, iritziak, albisteak, gidaliburuak, webguneak, artikulak ...
- Hizkuntza, data, formatua ...
- Gako-hitzak aukeratu:
 - bat, batzuk: sinonimoak, hitz zehatzagoak...

Nola bilatu

- Berdin da letra larria edota xehea idaztea.
- Azentu-markak eta dieresiak ez ditu kontuan hartzen.
- Bilaketak zehazteko hainbat sinbolo ditugu eta baita [bilaketa aurreratua](#) pantaila ere.
- Esaldia edota hitzen ordena zehatza: “ “
- Bolearrak: AND edo ezer ez, OR, - (ez)
- () AND eta OR konbinatzeko
- Tituluan: intitle:
- Helbidean: inurl:
- Webgune zehatz batean: site:
- Formatu zehatza: filetype:

Informazioaren berreskurapena (Information Retrieval)



2. Bilaketa prestatzeko

- Kontzeptuak identifikatu.
- Kontzeptu horiek garatu (sinonimoak, hitz zehatzagoak, orokorragoak, hurbilak...).
- Termino guztiak erlazionatu (Boole-ren funtzioak erabiliz AND, OR, NOT).

3. Emaitzaren balorazioa

***Egokitasuna, kontzeptu subjektiboa da.

1.- Doitasuna: erreuperatutako dokumentuen esanguratasuna (*zarata dokumentalik gabe*)

Doitasuna handitzeko bilaketa findu edota emaitzaren ordena egokia lortu!

Zarata dokumentala: informazioa bilatzerakoan dokumentu egokiak eta desegokiak jasotzea da. Terminoen polisemiaren edota konbinaketa faltsuen ondorioa da.

2.- Osotasuna, estaldura (*recall*): sisteman dauden dokumentu esanguratsuen artean zenbat itzuli diren (*isiltasun dokumentalik gabe*).

Estaldura zabaltzeko semantika erabili: sinonimoak, hitz zehatzagoak...!

Isiltasun dokumentala: informazioa bilatzerakoan egokiak diren dokumentu guztiak ez lortzeari deitzen zaio.

Indexazioan erabilitako terminoak bilaketan ez erabiltzeagatik sortzen da.

TRESNA LINGUISTIKOAK BILAKETAK HOBETZEKO

1.- Morfologia:

- hitza-lema, adibidez [ELEBILA](#) bilatzaile euskalduna.

2.- Sintaxia:

- Izen sintagmak bilatzen dituzte, dokumentuak multzokatzeko.

3.- Semantika:

- *Ontologiak* erabiltzen dituzte.

Adib. anbiguotasuna kentzeko, "baso"

bilaketa zabaltzeko, “jatetxe”, baina baita,
sagardotegi, erretegi...

Bilaketak hobetzeko gaur egungo ikerketak:

- Bilaketa eleanitzak.
- Erantzunak lortu, eta ez dokumentuak.

Bilaketa multimodala (dokumentu desberdinak ez bakarrik testuak

9. DATU BASEAK

Bibliografia

Agirreazaldeg, T. *Informaziorako dokumentazioaren oinarriak*. 2.ed. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2006. "4.2. Datu-baseen kudeasistemak" 130-136 or.

<http://ueu.org/download/liburua/InformaziorakoDoku.osoa.pdf>

Rodríguez Yunta, L. "Bases de datos documentales: estructura y uso". In Maldonado, A. (koord.). *La información especializada en Internet*. Madrid: CINDOC, 2001.

<<http://www.unav.es/dpp/documentacion/proteger/lryunta.pdf>>.

Definizioa

Datu-base bat datu-bilduma da, programa informatiko desberdinekin erabil daitekeena, ordenagailuan irakur daitekeen euskarri batean grabatua, eta erregistro deitzen diren unitate logikoetan artikulatua.

Datu-baseen kudeasistemak

- Datu- base erlazionalak: Datu-egiturak taulak dira, hau da, datu bakoitza ilara batean eta zutabe batean jarriko da.
- Datu-base dokumentalak: datuak gutxi egituraturik daude, eremu askoren luzera eta edukia ezin da aldeztatik jakin eta arazo linguistikoei aurre egin behar izaten diete.

Edukiari begira

1. Erreferentzien datu-baseak: metadatuak
2. Datu-base iturriak: metadatuak eta informazio osoa.

Datu-base iturriak


- Informazio osoa dute:
 - Zenbakiak (adib. datu estatistikoak)
 - Testuak
 - Irudiak
 - Multimediaiak

Beste sailkapen batzuk

- Eskuragarritasuna: publikoak (EHUko liburutegiko katalogoa) edo pribatuak (ETB).
- Banaketa: lokala (nire ordenagailuan), linean (Internet), editatua (DVD).
- Ekoi-zele: instituzionalak, komertzialak...
- Arlo tematikoa: ekonomia, zuzenbidea...

Datu-baseen egitura

- Entitateak: errealitatean dagoen zerbait
 - adibidez, liburu bat.
- Erregistroak: errealitate horri datu-basean dagokion fitxa.
- Eremuak: fitxaren atalak
 - adibidez, titulua, egilea, argitaletxea ...
- Datuak: entitateari buruzko informazioa fitxan
 - adibidez, Loiolako hegiak, Imanol Murua Uri...



10. Dokumentazio Informatiboaren Oinarriak

Disziplina

Dokumentazioa disziplina gisa. Hiru ikuspegi:

- Zientzia **instrumentala** eta laguntzailea.
- **Zientzia bat** (informazioa berreskuratzeko prozesuak ikertzen ditu).
- **Informatzeko modu** zehatz bat.

Sorrera

- XX. mendearen hasieran
- Dokumentu-ekoizpenaren hazkundeak eraginda.

Protagonistak

- Henri La Fontaine (1853-1943) eta Paul Otlet (1868-1944).
- 1895 *Nazioarteko Bibliografia Institutua* sortu zuten (1938tik Nazioarteko Dokumentazioaren Federazioa).

Mugarriak

- *Errepertorio Bibliografiko Unibertsala*, publikazio guztien kontrola bermatzeko.
- Dokumentua (edozein, liburu, aldizkari...)
- Nazioarteko lankidetzak
- Informazio zientifikoaren kontsumoaren eta ekoizpenaren ikertzeko beharra
- *Sailkapen Hamartar Unibertsala* (SHU), antolatzeko.
- *1934an Traité de Documentation*, lehengo eskuliburua.

Disziplinaren izenak

Dokumentazioa, Information Retrieval, Information Science, Informatika, Dokumentazio- eta informazio-zientziak...

Definizioa

Disziplina zientifikoa, zeinek informazio eta dokumentazio zientifikoaren egitura aztertzen duen, baita haien legeak, teoria, historia, metodologia eta antolakuntza ere. (FID)

Dokumentazioaren zeregina

- Dokumentuen informazioaren irudikatzea, gordetzea, berreskuratzea eta hedatzea ikertzen du.
- Informazio-iturriak ustiatzeko sistemak eratzen eta garatzen ditu, ezagutza horiek erabiltzaile-talde baten edo gizarte osoaren esku jartzeko.

Garapena

- Zientifikoa
- Ekonomikoa, jarduera sektore bat: erakunde zehatzen beharrak, informazioaren kudeaketan eraginkortasuna lortzea da helburua

Lanbidea

- Espezialitate eta ikerketa-arlo desberdinak
- Lantokiak

Dokumentazio-zerbitzuak

Bibliotekak

Artxiboak

Dokumentazio informatiboa

- Komunikazio-zientzietan
- Komunikazio-enpresetan

DOKUMENTUA

Definizioa: Euskarri iraunkorren erantsita dagoen edozein mezu –ikonikoa edo sinbolikoa- helburu informatiboarekin erabilia.

- Informazioa / Komunikazioa
- Iraunkortasuna :
 - Eskurapen diakronikoa
 - Antolakuntza

Dokumentazio-sistemak

Informazioaren profesionalak

- Komunikatzaileak, kazetariak...
- Dokumentalistak, liburuzainak, artxibozainak...

...

- Izendapen berriak: *content curator*...



"A Content Curator is someone who continually finds, groups, organizes and shares the best and most relevant content on a specific issue online." - Rohit Bhargava

Egiturak

- Artxiboak
 - Zaharrenak: Mesopotamian.
 - Erakunde (instituzio, administrazio, enpresa ...) bati lotuak dira, eta erakunde horren *jardueraren erregistroa* gordetzea dute helburu.
 - Dokumentu bakarrak izaten dira (ez argitaratuak).
 - Artxiboak antolatzeko: bi printzipio
 - Jatorriaren arabera gordetzen dituzte dokumentuak, dagozkien espedienteetan eta hauek serieetan.
 - Saillkapen taulak irudikatzen du erakundearen egitura.
 - Iraupen legala (eta, gero, beharbada, historikoa).

3.2 ESQUEMA DEL CUADRO DE CLASIFICACIÓN

1.00 GOBIERNO	<i>Seguridad Ciudadana</i>
1.01 Concejo / Ayuntamiento	<i>Bomberos</i>
1.02 Alcalde	<i>Milicias Urbanas</i>
1.03 Comisiones de Gobierno	<i>Policia Local</i>
1.04 Comisiones Informativas y Especiales	<i>Protección Civil</i>
2.00 ADMINISTRACIÓN	3.06 Sanidad
2.01 Secretaria	<i>Sanidad</i>
2.02 Registro General	<i>Centros Sanitarios</i>
2.03 Patrimonio	<i>Cementerio</i>
2.04 Personal	<i>Aguas y Alcantarillado</i>
	<i>Limpieza Publica</i>
	3.07 Beneficencia y Asistencia Social
	<i>Centros Sociales</i>

- Administratiboak
- Bitartekoak
- Historikoak: dokumentuek 50 urte baino gehiago.
- Kalitate agiriek, enpresetan, edota administrazio elektronikoak dokumentuen kudeaketa profesionala eskatzen dute, sortzen diren momentutik, formatu digitalean.
- Bibliotekak
 - Oso antzinakoak dira (Mesopotamian, Egipton eta Grezian). Izena grezieratik dator (liburu eta tokia).
 - Oinarrizko azpiegitura bilakatu dira herrialde garatuetan.
 - Helburua: jakintza jasotzea, gordetzea eta transmititzea.
 - Oinarrizko kontzeptuak:
 - Bilduma (dokumentu hautatuak)
 - Antolakuntza (ordenamendua, katalogoa)
 - Zerbitzuak ...
 - Zentro multimedia bilakatu dira.
 - Zerbitzu anitzak:
 - Ekimen kulturalak (irakurketa klubak, hitzaldiak, ipuinak, *bookcrossing*...)
 - Formazioa (ikastaroak...)
 - Azpiegiturak (ordenagailuak, *e-readers*-ak...)
 - Bilduma fisikoa eta birtuala
 - Motak:
 - Nazionalak

- Herrialde batek argitaratu duen osoa jasotzen du (liburuak, aldizkariak, diskoak, DVD-ak...), lege gordailuaren bidez.
- Bibliografia nazionala osatzen du.
- Herrialdeari buruz (edota bere hizkuntzan) publikatzen dena jaso dezake.
- Dohaintzak jaso eta dokumentu historikoak erosten ditu.
- Edukiak bildu, gorde, kontserbatu eta eskuragai jartzen ditu.
- Aitzindaria da; aholkuak, arauak eta aginduak plazaratzen ditu.
- BNE: Erregeak fundatu zuen 1711an. 1836an gaur egungo izena hartu zuen.
- Kataluniako liburutegi nazionala 1907an sortu zuten, eta geroztik kultura kataluniarraren motorra da. www.bnc.cat/
- Andaluzian (1994), Aragoian(1990), Errioxan(1988), Extremaduran (1995), Gaztela eta Leonen (1989), Kantabrian (1999), Madrilen(1989)...
- Biblioteka Nazionala Euskal Herrian:
 - 11/2007ko Legea, Euskadiko Liburutegikoa, bete gabe dago.
 - [Koldo Mitxelena](#) izango zela esan zuten.
 - Nafarroan, [Nafarroako Liburutegia](#) 2002an
- Publikoak,
- Unibertsitatekoak,
- Espezializatuak,
- Digitalak,
- Hibridoak...

Dokumentazio zerbitzuak

Dokumentazio-zerbitzuan egiten den lan bilduma PROZESU DOKUMENTALA da

- Gai espezializatuak.
- Erabiltzaile talde zehatzak.
- EHU-ko liburutegian *Dokumentazio zerbitzua* kanpoko ondare eta baliabideetara hurbiltzeko. Baita, datu-baseak kontsultatzeko gunea ere.

Prozesu dokumentala

- Sarrerako funtzioak

- Zerbitzuari interesatzen zaizkion dokumentuak zehaztea eta jasotzea:
dokumentuak hautatu, eskuratu eta erregistratu.
- Tratamendurako funtzioak
 - Bi helburu: dokumentuak ordenatu eta dokumentuak eta horien informazioa agertarazi.
 - Egiten diren lanak:
 - *deskribapen bibliografikoa*
 - *edukiaren analisia: laburpena, sailkapena eta indexazioa*
 - *ordenamendua eta gordeketa*
- Irteerako funtzioak
 - Dokumentazio-zerbitzuek dituzten baliabideen ustiapena da
 - *eskaerei erantzuna eman*
 - *dokumentuak zabaldu*
- Arreta funtzioak
 - Prozesu osoa kudeatzen eta planifikazioa bideratzen dutenak dira.

Dokumentazioa Komunikabideetan

Bi helburu:

- Komunikabidearen ekoizpena gorde eta kudeatu modu eraginkorrean.
- Informazioa aberasteko eta hobetzeko behar den kanpoko informazioa eskaini.

Dokumentazioa Publizitate Agentzietan

- Dokumentazio zerbitzu gutxi daude.
- Sarritan, behar dituzten datu eta txostenak kanpoko enpresei erosten dizkiete.
- Behar duten informazioa:
 - Audientzia
 - Produktua
 - Lehiakideak
 - Beste kanpaina batzuen datuak
 - Publizitatearen inbertsioak (iragarleak eta agentziak, komunikabideak)

Agentziak egin dituen kanpainak analizatu eta gorde behar ditu, etorkizunean, informazio horiek erabilgarriak izan daitezen.

13. PRENTSAKO INFORMAZIOA

- Direktorioak
- Egunkariak erosteko plataformak
- Prentsa datu-baseak. Ereduak:
 1. Ostalariak.
 2. Komunikabideak.
 3. Bilduma historikoak.
 4. Batzaileak.
 5. Informazioen segimendua.

Direktorioen hainbat adibide: Kiosko, Online Newspapers ,Pressnet, El quiosc ,Gida. Irekia , Agenda de la comunicación

Egunkaria erosteko plataformak

- Kiosko y Más (Prisa, Vocento eta Zeta), NewspaperDirect plataforman.
- Orbyt: El Mundo.
- Presst: Gara, Noticias Taldekoak, Deia eta Berria. Issuu, teknologia erabiliz.

Prentsa datu-baseak

Eskaintzen dituzte:

- Kontsultak eta bilaketak egunkari batean edota batzuetan.
- Alertak eta albisten segimendua.

bilaketa (search)

kontsulta (browsing)

The image shows a screenshot of the website diariavasco.com. At the top, there is a navigation menu with categories like 'Portada', 'Gipuzkoa', 'Deportes', 'Economía', 'Más Actualidad', 'Series y TV', 'Ocio', 'Participa', 'Blogs', 'Servicios', and 'Numeroteca'. Below the menu is a search bar with the text 'BUSCADOR y ARCHIVO' and a 'BUSCAR' button. A green arrow points to the search bar. Below the search bar is a calendar for the year 2012, with the months 'Enero', 'Febrero', and 'Marzo' visible. A blue arrow points to the calendar. The website also features various advertisements and links to other services like 'pisos.com', 'infoempleo', and 'AUTOCASION'.

Alertak:

- Hitz bat edo batzuk jarri eta, etorkizunean, hitz horiek izango dituzten albisteak gure posta elektronikoan eskuratuko ditugu.

+TU Búsqueda Imágenes Vídeos Maps Noticias Shopping Gr

Google **Alertas**

Consulta de búsqueda:

Tipo de resultado:

Frecuencia:

Cantidad:

Su dirección de correo electrónico:

CREAR ALERTA

Administrar sus alertas

Prentsa datu-baseak; Ereduak

1. Ostalariak.
2. Komunikabideak.
3. Bilduma historikoak
4. Batzaileak.
5. Informazioen segimendua

Ostalariak (host, banaketa enpresak): Enpresa hauek komunikabide askoren informazioak bildu, datu-baseak osatu eta komertzializatu egiten dituzte:

- Lexis Nexis (AEB),
 1. Factiva (Reuter)

Factiva.com <http://www.dowjones.com/factiva/>

- Enpresei buruzko informazioa.
- Nazioarteko egunkari eta aldizkari ospetsuak.
- Harpidetza eskatzen du.

2. Mynews, (EHUko hemerotekan)

MyNews <http://mynews.es/>

- Ostalari espainiarra, 1995an sortua. Gaur egun, La Información (Diario de Navarra) taldearen barruan .
- EHUko liburutegian kontsultagarri.
- Eskaintzen ditu: – Bilaketak egunkari askotan. – Artikuluen pdf-ak. – Alertak eta prentsaren jarraipena... (pertsonalizazioa, informazioa webgunera eraman...).

3. Hemeroteka Plus, (EHUko hemerotekan)

- Plazaguneak komertzializatu zuen, 2004tik2011ra.
- Euskal Herriko egunkariak eskaintzen zituen.
- Harpidetza.
- Pressdisplay (EHUko liburutegitik sartuta)

Baratz (1981etik 2002ra)

- Bilbon sortu zen (gaur egun, Madrilen du egoitza eta liburutegietako softwarra saltzen du).
- Albisteen erreferentziak eskaintzen zituen (ez albiste osoak), dokumentalistek osatuak.
- Gai ekonomikoak, politikoak eta lanekoak.
- 4 CD-ROMetan.

KOMUNIKABIDEAK

Interesa: informazio kopuruaren eta bilatzailearen kalitatearen arabera.

- Doan edota eredu mistoak.

Adibide interesgarriak: New York Times, La Vanguardia, El Mundo Deportivo, El País...

The New York Times (1851-)

- Le Monde (1987-)
- La Vanguardia (1881-)
- El Mundo deportivo (1906-)
- El País (1976-)
- El Correo (2006-)

Efedata <http://www.efe.com/efe/productos/espana/fondos-documentales/1/69>

- EFE agentziak sortua, harpidetza eskatzen du.
- Albistek, 1988tik aurrera.
- Biografiak.
- Gaiak.
- Enpresa eta erakundeen informazioak.
- Efemerideak.

HEMEROTEKA HISTORIKO DIGITALAK

Nola dago eginda digitalizazioa?:

a) Testu moduan (ikusi, inprimatu eta, baita, hitzak bilatu eta kopiatu). Digitalizazioa egiterakoan, OCR (Optical Character Recognition) programa bat pasatzen da

<http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2011/04/pilulakOCR-2.pdf>

b) Irudi moduan (ikusi eta inprimatu).

Euskal prentsaren lanak <http://www.hemeroketa.com/>

- Donostiako Udal Liburutegiko hemeroteka digitala
<http://liburutegidigitala.donostiakultura.com/Liburutegiak/?LANG=eu>
- Liburuklik ataria: Bizkaiko Foru Liburutegia, Arabako Foru Aldundia, Santxo Jakituna ...
<http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/10408>
- Espainiako Biblioteka Nazionaleko Hemeroteka Digitala
<http://www.bne.es/es/Catalogos/HemerotecaDigital/>
- Gallica – Frantziako Biblioteka Nazionala <http://gallica.bnf.fr/>

BATZAILEAK

Iturri askotako informazioa bildu eta eskaintzen dute

- Automatizatuak:

- Google News <http://news.google.com/>
- Newsmap <http://newsmap.jp/>
- Sustatu <http://sustatu.com/auto/>
- Niagarank <http://niagarank.es/>

- Sozialak:

- Digg <http://www.digg.com>
- Menéame <http://meneame.net/> Espainiako Jabetza Intelektualaren legearen

Espainiako Jabetza Intelektualaren legearen erreformak (2014/09/22) hedabideen edukiekiko loturak erabiltzeagatik tasa bat ezarri du. CEDRO Elkarteak kudeatuko du tasa hori, eta hedabideen 'errefusatu ezinezko eskubidea' izango da. <http://www.teknopata.eus/2014/12/google-espainiako-news-orria-ixtekotan/> Ondorioz, Google Newsen Espainiarako bertsioa desagertu da. Baita, NiagaRank zerbitzua ere.

Google news

- Albistegi automatikoa da (robotek eginda).
- Interneten eskuragai dauden albiste iturriak jaso, albiste berdinak multzokatu, eta garrantziaren arabera ordenatzen ditu.
- Bertsio desberdinak daude hizkuntza eta herrialdeen arabera

INFORMAZIOAREN SEGIMENDUA

Dokumentalistek, kazetariak edota kanpoko enpresek intereseko albisteak hautatzen dituzte egunero. Adibidez, EHUko Komunikazio bulegoak

- Enpresak: Acceso, TNS...
- Prentsa buletinez gain, albisteetan oinarrituta, txostenak, dosierrak eta balio handiko analisiak ere egiten dira

5.1.- Segimendua Interneten

- Bezeroak zehazten du bere profila, eta estekak eskaintzen zaizkio Interneten dauden iturriak arakatzuz. Adibidez, iConoce www.iconoce.com

14. ARGAZKIAK BERRERABILTZEN

Ez dago argazki neutrorik, ez dira existitzen, Argazkiak berekin du subjektibotasuna.

Prentsa-argazkietako bitarteko faktoreak

1. Argazkilaria
2. Kazetaria
3. Irakurlea
4. Dokumentalista

1.- Hartzeko momentuan:

- Bitartekari teknikok, argazkilaria asmoa, bitarteko faktoreak enpresaren ideologia.

2.- Argitaratzerakoan: bitarteko faktoreak

- Neurria, kokapena, eta abar erabakitzen ditu kazetariak, eta argazki-oina osatzen du...

3.- Irakurleak:

- Argazkia interpretatzen du, egunkariak eskaintzen bitarteko faktoreak dion testuingurutik, baina baita ikuspegi pertsonalaren arabera ere.

4. Argazkitegiak bitarteko faktoreak

- Dokumentalistak egindako hautaketa eta analisisa argazkia geroan nola erabiliko den baldintzatuko du.

Nola, noiz eta zertarako erabiltzen dira artxiboko argazkiak ?

Artxiboko argazkien erabilera;

1) Informatiboa: testigantza: Argazkiak gertaera baten lekukotasuna eskaintzen du. Hori gogorarazteko erabiliko dugu argazkia, testigantza gisa.

Adib.: –Gertakizuna berriro azaldu nahi dugunean (asteko edota urteko albisteen laburpena...)

–Gertakizun baten alderdi bat berritzen denean, aurrekariak erakusteko...

Informatiboa: Erabilera beti da egokia. – Kazetariak argazkioin informatiboa osatu beharko du ulermena bermatzeko.

2) Baliabidetzat: egunekoa bailitza.

2.1) metonimikoak: Protagonisten irudia, beste testuinguru batetik hartuta.

2.2) ilustratiboak

Argazkia baliabidetzat; berriaren ilustrazioa

Irudia eta albistea arbitrarioki lotuz, antzekotasuna dela medio.

Argazkia BALIABIDETZAT, modu egokian erabiltzeko baldintzak:

1. Irakurlea ez engainatzea.
2. Kutsu negatiboa duten albisteetan ez erabili.
3. Produkzioaren testuingurua ezagutu behar ! dugu egokia den ala ez jakiteko.
4. Argazkien “gaurkotasuna” ziurtatu.
5. Ez erabili larregi, ez berrerabili epe laburrean.
6. Argazki-oin egokia osatu.

15. DOKUMENTAZIOA PRENTSAN ETA EGUNKARI DIGITALETAN

1. - Kazetaritzako informazioaren adierazleak

Informazio kopuru handia, diziplina artekoa, entziklopedikoa, unibertsala, sakabanatua, despertsonalizatua, arina eta sakontasuna era berean, espezializatua, errepikakorra, ideologizatua, moden menpekoa, azkar zaharkitua ...

2. - Kazetariaren gakoak

- Informazio-kopuru handiak menderatzea.
- Informazioa egiaztatzea.
- Informazioaren ezagutza kritikoa edukitzea.
- Berriak duten garrantziaren eta entzulearen interesen arabera aukeratzea eta aurkeztea.



3. – Dokumentazio-zerbitzuak

1. Barruko informazioa: Komunikabideak ekoiztutakoaren artxiboa osatu.
2. Kanpoko informazioa: Kazetari lana hobetzeko behar den beste informazio dokumentala eskaini.

4.- Dokumentazioaren ekarpena

- Informazioa egiaztatzeko
- alde zuzenetik prestatzeko
- informazioa osatzeko
- iritziak sendotzeko argudioak eskainiz

Gehienetan zeharka iristen da entzuleriarengan, kazetaria dokumentatuz.

Batzuetan zuzenean, dokumentazio materialaz osatutako piezetan: biografiak, kronologiak, nekrologikoak, dosierak...

Kazetaritza digitala → dokumentazioa

Dokumentazioa kazetaritza digitalaren erdian kokatu da.

- Ez dauka prentsa analogikoaren mugak (leku mugatua, ixteko momentua...).
- Testuak zabalak dira (hipertestua).

Egunkari digitalaren elementua

- albisteak
 - Laburra, paragrafo motzak
 - Estekaz hornituak (egitura narratiboa hipertestuetan oinarritzen da).
 - Alboan, zerikusia duten beste albiste batzuk.
 - Parte hartzea bultzatzeko elementuak.
- gaiak
 - Sakontasunarekin landutako gai, ekitaldi, pertsona...

- Oinarrizko informazioa
- Albiste bilduma
- Agiriak, multimediak...
- hemeroteka
 - Barrura begira
 - Erabilera handia, albisteen estekak osatzeko.
 - Zer ikusia duten albisteak proposatzeko.
 - Gaien oinarria
 - Eduki berrien iturria: efemerideak
 - Kanpora begira
 - Zerbitzu berri bat hezkuntzan, administrazioan, enpresetan... edonorentzat.
 - Egunkariaren marka indartzeko elementua.
 - Diru iturriak
- biltegi multimediak
 - Oraindik oso gutxi landu dira
 - Galeria, hau da, albiste baten inguruko argazki bilduma
 - Hobetzeko: argazki bakoitzari metadatuak ezarri, bilaketak ahalbidetuz
- interakzioa eta parte hartzea
 - Inkestak
 - foroak
 - elkarrizketak
 - informazioa bidali
 - zuzendu
 - iruzkinak
 - sare sozialetara bidali
- beste zerbitzu batzuk
 - Buletinak (titularrak posta elektronikora)
 - Blogak
 - Azken albisteak
 - Albisteen segimendua twiterren

16. IKUS-ENTZUNEZKO DOKUMENTAZIOAREN ERABILERA TELEBISTAN

Albistea:

- Albisteen %42k erabiltzen ditu artxiboko grabazioak
- Kasu gehienetan (%27k) egungo grabazioak eta artxiboak konbinatzen dituzte.
- %15k ordea, artxiboko grabazioekin soilik osatzen dira.
- Dokumentazioaren erabilera handiagoa da garrantzi handiko albisteetan, hau da, saioaren eta sekzioaren hasieran. Lehengo hiru albisteetako %51k erabiltzen du dokumentazioa.
 - Denbora eta baliabide gehiago (bideo desberdinak, postprodukzioa...
- Dokumentazioa sekzio guztietan erabiltzen da.
- Albisteak hautatzerakoan, egungo irudiak izatea erabakigarriagoa da kultura, kirola eta nazioarteko ataletan.

Erabilera:

1. Metonimikoa
2. Ilustratiboa (girotzekoa)
 - Ikus-entzunezko mezua osatu
 - Narrazioa osatu
 - Albistea ulergarria egin
 - Ikusgarritasuna eman
3. Informantiboa-testigantza
 - Dokumentazioak albistea osatu eta aberastu egiten du: testuingurua, aurrekariak, biografiak...
 - Kalitatezko albistea osatzen kazetariaren ezagutza eta trebetasuna ere beharko da.

Kontuz!!

Testuinguruan jartze desegokiak, batik bat albiste negatiboetan.

Ez erabili irudi bera behin eta berriro, pobretasuna, asperdura, konfiantza galera...

Irudiaren gaurkotasuna neurtu

Oro har, ez badu mezuaren komunikazioa errazten, soberan dago.

Bideoen soinua ez da apenas berrerabiltzen.

Salbuespena, adierazpen polemikoak, musika...

Artxiboko irudiak oso gutxitan errotulutzen dira; eta errotulazioa nahiko arbitrarioa izaten da.

Dokumentazioa irratian:

1. Soinua: Musika eta hitza
 - Fonoteka oso aberatzak dira.
 - Musika: saioen edukia edo girotzeko.
 - Katalogazioa oso zehatza da (diskoarena baina, baita, abesti bakoitzarena ere).
 - Efektuak (grabazio bereziak).
2. Hitza
 - Saioak: osoak edota laginka gordeko dira.
 - Soinu mozketak: Adierazpenak, grabazio zati hautatuak berrerabiltzeko gordeta. Bakoitzaren katalogazio zehatza egiten da.